

Marteutene

Ikusi eta ikasi gaztelekuan

Irutxulo

Auzoko gaztelekuak prest du datozen hilabete-tarako kultur egitaraua. Batetik, hiruhilabeteko iraupena izango duten ikastaroak aipatu behar dira. Bestetik, hainbat gairen inguruko lantegiak.

■ kastaroei dagokienez, antzerkiari buruzkoa izango da hasiko den lehena. Ikastaroa otsailaren 10ean hasi eta apirilaren 7ra arte luzatuko da. 16 eta 30 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago. Martxoan, gainera,



Datozen hilabeteetan hainbat ikastaro egiterik izango da auzoko gaztelekuan, hala nola, magia, antzerkia, perkusioa eta masajea.

beste hainbat ikastaro egingo dira, hala nola, perkusioa, baratzagintza, txalaparta, ipuin kontalaritza eta kirol masajea. Perkusio eta baratzagintza ikastaroak

martxoaren lehen hasiko dira. Magia eta txalaparta buruzkoak, berriz, martxoaren 3an eta ipuin kontalaritza eta masajearen ingurukoak, martxoaren 6an.

Bestalde, otsailaren 6, 13, 20 eta 27an rol jokoen lantegia egingo da, arratsaldeko 16.00etatik 20.00etara. Bai ikastaroetan zein lantegietan parte hartzeko izena emateko epea zabalik da dagoeneko.

Hi blai Trinketen

Otsailaren 3an, larunbata, Hi Blai taldeak kontzertu bat eskainiko du Martuteneko Trinkete tabernan. Kontzertua gaueko 23.00etan hasiko da.

LAUIZETA IKASTOLA BHI

Gabriel Aresti 165 • EGIA
Tel. eta Faxe: 943 29 30 05
Tel.: 943 28 10 24 e-mail: 012958aa@hezkuntza.net



KALITATEZKO IRAKASKUNTZA EUSKALDUNA

INTXAURRONDO IKASTOLA

Zarategi Pasealekua
Tel. Faxe: 943 28 51 10
e-mail: 012367aa@hezkuntza.net



- Haurtzaindegia
- Ingelesa eta musika haur eskolan
- Jangela

AITOR IKASTOLA

Konkorrenea 5 • EGIA
Tel.: 943 28 21 32 - 943 28 25 92
e-mail: aitorame@euskalnet.net



- Haurtzaindegia, Jangela
- Ingelesa eta musika haur eskolan
- Teknologi berriak



INTXAURRONDO HEGOA IKASTOLA

Baratzategi z/g
Tel.: 943 28 79 33 e-mail: 013079aa@hezkuntza.net

- Ingelesa goiztiarra
- Jangela
- Haurzaintza
- Psikomotrizitatea